

MUko neskak, 7ko futboleko txapelketan Madrilen.

2011/03/28

Eskadiko txapelketa irabazi eta gero, MUko nesken 7ko futboleko taldeak, Madrilen jokatzeko pasea eskuratu zuen. Aurten, Sevillan 21 unibertsitatetako arduradunen aurrean (guk ere bertan ginen) egindako zozketaren ondorioz, honelako taldean egokitu zitzaigun:

C taldea: Extremadura Vs Galizia eta Islas Baleares Vs Euskadi. Gure aurkariak talderik ez zuenez, zuzenean beste partiduko irabazleen kontra jokatu behar genuen.

Horrela, asteartean EHUko ikasleekin batera Madriler a abiatu ginen autobusean, bidean bazkaldu eta arratsaldean hotela hartu eta gero, Madrildik paseoa eman genuen.

Asteazkenean, goizean goiz jeiki, gozaldtu eta Villaviciosa de Odon-era joan ginen U. de Extremadurako taldearen kontra jokatzeko.

Hasiera txarra baten ondorioz, azkarregi bi gol jaso genituen, eta joko moldaketak egin eta gero, joko hobetu, eta 1-3ko markagailuarekin bukatu zen partidua.

Guztiantzat esperientzia polita izan dela uste dugu, fakultate ezberdinetako neskak elkartu taldea egiteko eta beste unibertsitateko ikasleekin batera aritzeko aukera izan dute.

Ea datorren urtean hurrengo fase batera pasatzerik daukagun.

